



Zumaia Udala



**UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA**



EUSKARA TXANPAN PLAN ESTRATEGIKOA 2018-2022



2018KO AZAROAN

SARRERA

Zumaiako Udalak 2004an onartu zuen herrian Euskara Biziberritzeko lehen Euskara Plana, 2005-2008 bitartekoa; hurrengoa 2009-2013 bitartekoa izan zen. Ondoren, izena aldatu eta 2014an Zumaiara egokitutako Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) 2014-2017 onartu eta garatu zuen Udalak. Orain, berriz, 2018-2022 bost urtekorako ekintza plan berria egin behar du.

Aurreko planaren oinarria hartuta landa plan hau, eta hurrengo bost urteetarako jardunbidea markatzen du; hau da, zein arlotan lan egingo dugun euskararen erabilera sustatzeko. Plana, beraz, ez da muga izango aurrerago etor litezkeen egoera berriei aurre egiteko orduan, eta malgua da, zabala. Aurrerantzean, herriko elkarteek eta euskaltzaleek ekarpenak egin ahal izango dizkiote, horrela errazago lortuko dugulako euskarak gero eta indar handiagoa izan dezan Zumaian.

I

DIAGNOSTIKOA 2014-2017

Hainbat iturri hartu dira kontuan diagnostikoa egiteko:

- Urteko memoriak
- UEMAren 2018n egindako ebaluazioa
- Ikerketa eta neurketa bereziak

Bitartekoak eta azpiegitura:

- Euskara Zerbitzua eta Euskara batzordea
- Euskararen Aholku Batzordea eta beste elkarte/laguntzaile batzuk
- Urola Kosta Udal Elkarte eta UEMA


Lehenbizi datu orokor batzuk eskaini ditugu, kokatzeko, eta ondoren ESEP ereduaren arabera bereizi ditugu esparruak: lehen zatian, **morez**, abian dauden JARDUERAK zerrendatu ditugu, eta atal batzuetan baita datu batzuekin osatu ere. Atal **urlinean**, berriz, 2018tik aurrerako asmo eta proiektu batzuk aipatu ditugu.

ZUMAIAKO DATU SOZIOLINGUISTIKO NAGUSIAK 2006-2016 BILAKAERA

BIZTANLERIA	2006	2011	2016
Hiztunak	8.588	9.144	9.869


EUSKARAREN EZAGUTZA	2006	2011	2016
Euskaldunak	% 71,7	% 71,6	% 73,8
Ia euskaldunak	% 15,8	% 15,8	% 10,6
Erdaldunak	% 12,5	% 12,6	% 15,6

Iturria: EUSTAT



ERABILERA KALEAN	2006	2011	2016
Orokorra	% 58,0	% 52,8	% 57,8
Haurrak (2-14)	% 80,2	% 71,2	% 75,1
Gazteak (15-24)	% 64,9	% 70,9	% 79,7
Helduak (25-64)	% 46,0	% 42,2	% 49,1
Adinekoak (65-)	% 52,8	% 45,3	% 39,5

Iturria: Soziolinguistika Klusterra



EUSKARA ARDATZ ESTRATEGIKO

Herrian egin diren gogoeta eta plan orokorretan euskara ardatz modura landu eta jaso da emaitzetan. Horren adibide dira 2016-2016 plan estrategikoa eta 2018ko Turismo plana.

1. Familia bidezko transmisioa

EGUTEGIAK: Zumaiaiko hitzak, leku izenak, hizkuntzak... HH osoan eta LH-4 bitartean banatzen dira, 1.500 ale inguru.
JOSTAILUEN ERAKUSKETA: azaro amaieran egiten da, Ludotekan, eta euskarazkoei toki berezia egiten zaie.
HITZALDIAK ETA GURASO ESKOLAK: urtero berdintsu egiten da, haurreskolekin eta gizarte zerbitzuekin koordinatuta.
FAMILIA IRTEERAK: urtean 3 egiten dira, Ludotekaren bitartez.
JAI OBERRIEI OPARIAK: CD bat banatzen zaie, autorako pegatina eta gutuna. Urtean 100 inguru.

Aurrera begira:

Egutegiekin batera argibide batzuk landu eta banatuko dira, gurasoekin seme-alabekin gaiari buruz hitz egitea errazteko.

2. Irakaskuntza

ZUMAIA EZAGUTZEN: Araziren bitartez bideratzen da egitasmoa, LH 5 eta 6, eta DBH1 eta 2 mailetan.
SOZIOLINGUISTIKA SAIOAK: irakasleek bideratzen dituzte, UEMAren materiala erabilia.
HITANOA BERRESKURATZEKO EGITASMOA: ikastetxeen esku dago materiala, paperean eta euskarri elektronikoan.
Soziolinguintika Klusterrak egiten du jarraipena.
IDAZLEAK IKASTETXEETAN: urtean bisita bat izaten dute gutxienez, Udalak erdia ordaintzen du.
EUSKARA ZINEMARA: urtean pelikula bat ematen da, HH5eko eta LHko 1 eta 2 mailentzat.
SAN TELMO LITERATURA SARIAK: urtero berdintsu egiten da, eta lanak liburuxka batean jaso.
GU ERE BERTSOTAN: Gipuzkoako Bertsozale Elkartearen bitartez, LH 5 eta 6 mailetan lantzen da.
Zumaiaiko ikastetxeetan D ereduak bakarrik ematen da.
EPA edo helduen irakaskuntzako ikastaro gutxi ematen dira. 2018an gaztelaniazko eskolak bakarrik eman dituzte.

Aurrera begira:

Aurrelan batzuk bultzatu ditu Zumaiaiko Udalak herriko curriculumak diseinatzen hasteko.
2018an batxilergoko ikasleek saio berezi batzuk eman dizkie EMUN kooperatibak Euskaraldiarekin lotuta.



3. Euskalduntze eta alfabetatzea

IKASTEKO BEKAK: urtean bi deialdi egiten dira, eta 15.000 €-tik gora banatzen dira urtean.

MINTZALAGUNA: eskualde mailako proiektua da, eta Zumaian 3 talde ibili dira azken ikasturtean.

AISA IKASTAROAK: taldea osatzeko aukera ikusten denean jartzen da martxan, euskaltegiarekin harremanetan.

ERREFORTZUAK: AEKren bitartez ematen dira, ikastetxeekin elkarlanean aztertuta; gero Ludotekara bideratzen dira gaztetxoak.

Aurrera begira:

HABErekin harremanak finkatuko ditu Udalak, euskalduntzeko laguntzak uztartu eta elkarren osagarri izan daitezen.

4. Administrazioa

ERABILERA PLANAK: 5 urteko epealdiarekin lantzen dira, gero urteko kudeaketa planak eta jarraipen batzordea daude zehatzago lantzeko. UEMArekin elkarlanean.

ERRENTA AITORPENA EUSKARAZ: UEMAren laguntzarekin egiten da azken urteotan, eta GFArekin harremanak euskaraz izan nahi dituzten herritarrak %25 inguru dira.

Beste administrazio batzuetako zerbitzuei dagokienez:

- OSASUN ZENTROAN egoera orokorra ona da, ordezkapen batzuk betetzeko zailtasunak dauden arren (udako oporretan oro har eta pediatrik urte osoan). Herritar gehienek euskarazko arreta eskatu dute: %67k.
- BAKE EPAITEGIA: urtebetez euskaraz ez zekien langile bat ibili ondoren, 2016an hasi zen idazkari euskaldun bat. Udalarekin harreman ona du epaitegiak, erregistroko datuak jasotzen ditu (jaiotzak, ezkontzak eta heriotzak) eta baita kanpainetan lagundu ere (abizenak euskaraz jartzekoa, adibidez, 2017an). Bake epaileak EGA agiria du.

Aurrera begira:

Bikain ziurtagiria ateratzeko aukera aztertuko da.

5. Gune geografiko euskaldunenak

UEMAko partaide da Zumaia 2009tik. 4 ordezkari ditu Udalak batzar nagusietan parte hartzeko. UEMAK teknikari bat izendatua du eskualdeko herrietan zerbitzua emateko. Buletinak bidaltzen dira etxe guztietara urtean 4 bider.

6. Arlo sozio-ekonomikoa

MERKATARIENTZAT KATALOGOA: Udal Elkartearen bitartez egin da azken urteotan.
ERROTULUAK EUSKARAZ: urtean 4-5 eskaera izaten dira, Udaletik nahiko bideratuta dago.
BANKETXEAK: 7 daude Zumaian, eta horietatik 6tan kartel handiak egoten dira erakusleihoetan; erdietan euskaraz edo euskara nabarmenago, eta beste erdietan gaztelaniaz edo gaztelania nabarmenago. Bi entitatek sinatua dute hitzarmena UEMArekin euskarari dagokionez betebeharrak batzuk bermatzeko.
LAN MUNDUA: eskualde mailako egitasmo bat badago, baina nahiko geldia. Zumaian GKN enpresan ari dira lanean.
GIDABAIMENA EUSKARAZ: Zumaia auto-eskolan eskaintzen da aukera, baina azken urtean behera egin du nabarmen eskaerak, euskaraz 2015ean % 56 egitetik 2017an % 16ra jaitsi da. Euskarazko materiala hobetu eta eguneratu beharra dago.

Aurrera begira:

Dinamizatzaile berria hasi da Zumaia merkatariarekin lanean (Azpeitiko enpresa badabil), eta elkarlanean aritzeko aukera badago.

7. Aisia eta kirola

UDALEKU IREKIAK, LUDOTEKA eta GAZTEGUNEAK: euskaraz ematen da zerbitzua, eta euskara zeharlerro gisa lantzen da.
TURISMO IRTEERAK EUSKARAZ: euskarazko eskaintza ziurtatzen da. Turistei zuzendutako hiztegitxoak landu dira, udal elkartearen bidez.
ZUMAIKO KLUBAK/ELKARTEAK: diru-laguntzei lotuta, euskara erabiltzeko baldintza batzuk jartzen zaizkie kirol elkartei.
KIROLDEGIKO IKASTAROA: gehienak euskaraz ematen dira. Zumba, Aerobik eta GAP gaztelaniaz.

8. Liburugintza

JULENE AZPEITIA IPUIN LEHIAKETA: orain [sarean](#) ere jartzen dira ipuinak, bertsio elektronikoetan.

9. Kulturgintza

LITERATUR TAILERRA: 2007tik antolatu izan da, azkenaldian bi urtean behin (Getariarekin txandaka).

IRAKURLE TALDEA: Uxue Alberdik gidatuta, hilean behin euskarazko liburu bat aztertzen dute: [Bloga ere](#) badute.

[ZUMAIKO AHOTSAK](#): bideo bat jartzen dugu astero Baleike.eus gunean.

Kultura Saisetrik egiten den eskaintza aberatsa da, euskarazko antzezlan eta ekitaldi asko programatzen direlako. Era berean, ikastaro gehienak ere euskaraz izaten dira.

10. Publizitatea

Udalak euskarazko iragarkiak jartzen ditu Baleike aldizkarian eta Uroa Kostako Hitzan. (merkatari elkartekoenak ere bai). Diseinu lanetan aritzen diren establezimenduekin lankidetzan aritzen da Udala, euskara egoki erabiliko dela ziurtatzeko: itzulpen laburrak, zuzenketak...

Imanol Azkuek 2017an egindako ikerlanean jasotako datu batzuk:

- Etxean jasotako propaganda gehiena gaztelaniaz egoten da (21etik 8), eta bestela ele bitan (8).
- Kaleko paneletan euskaraz jartzen dira gehienak (%62).

11. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

TOPONIMIA: mapa toponimiko berria egiteko aurrelanetan ibilia da Udala 2017an. Kaleen izen batzuk berrikusiko dira eta etxe zaharren izenak jaso.

Aurrera begira:

Mapa toponimiko berria egin daiteke 2019an. Horrekin lotuta, etheen kanpoaldean izenak jartzeko laguntzak eman daitezke. Lehen egindako ikerketak zabaltzeko aukera dago: Zumaiaiko hizkera PDF bidez, hitanoaren neurketa berriz egin...

12. Hedabideak

BALEIKE ETA BALEIKE.EUS: hitzarmen bidez ematen zaie laguntza. Indar handia hartu du webguneak (elkarte eta talde asko daude Komunitatean) eta erreferentea da.

UROLA KOSTAKO HITZA: hitzarmen bidez ematen zaie laguntza.

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

2015eko Hitzaldi zikloaren barruan gizarteratu zen gaia, Josu Waliñorekin.

Puntu EUS erakundearekin hitzarmena du UEMAk, eta Zumaian erregistratutako webguneen datuak eskura daude: 305 webgunetik %30k badute euskarazko edukiren bat, eta %15ek edukien erdia baino gehiago. Webgune horietatik 27k dute EUS domeinua (%8,9), tartean Udalarenak (helbide elektronikoak ere bai).

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

KALEKO ERABILERAREN NEURKETA: azkena 2016koa da, aurrekoak 2006koa eta 2011koa. Datuak Udalaren webgunean daude.

DIKOMA EGITASMOA/EKOLINGUA: bi topaketa egin dira Zumaian; 2015eko martxoan bideoa eta mahai-ingurua egin ziren zikloaren barruan.

EUSKARAREN ASTEAK: azkenaldian argazki jendetsuen bidea landu da gehienbat. Kultur ekitaldi batzuk ere ekartzen dira: euskarazko filmak, emanaldiak...

KORRIKA: bi urtean behin izaten da (bakoitietan), kultur jarduerak eta motibazioa lantzen dira.

ARNASGUNEEN TAILERRA: bi saioko tailerra antolatu zuen Udalak 2017 hasieran, UEMAren bitartez.

Aurrera begira:

EUSKARALDIA: Topagunearekin elkarlanean, saio batzuk bideratu dira 2018an taldea eratzeko. Batzorde indartsua ari da lanean 2018ko Euskaraldia antolatzeko. Udalak dinamizatzaile bat kontratatzea erraztu du.

15. Barruko proiektzioa

HITZALDI ZIKLOA: *Euskara, bestela ez gara* zikloa 2012tik aurrera urtero antolatu da otsailean eta martxoan, kanpoko ekarpenak eta herriko esperientzia batzuk aurkezteko.

ESKAINTZA TURISTIKOA: 2017n lantzen hasita, 2018an euskarari buruzko bisita berezia aurkeztu da, “Enigma bizia” izeneko, Kike Amonarrizen laguntzarekin.

BIDAIA-TÚ: Artez enpresak bideratuta, bi saiotan euskararen erabilerari buruzko hausnarketa egin zuten 20 bat lagunek, tartean elebidun pasiboak eta oso gutxi ulertzen zuten zumaiaarrak.

Euskara Zerbitzua LANKIDETZAN aritzen da eskualdeko teknikariek, UEMAkoekin eta Gipuzkoakoekin (prestakuntzak, gogoeta partekatuak, proiektu bateratuak...). Euskararekin lotuta ikastaro eta jardunaldietan parte hartzen du Udalak: Udaltop teknikarientzat, Lurraldea eta Hizkuntza (UEMA), Soziolinguistika Klusterrak antolatutakoak...

EUSKARAREN ASTEA: Euskararen Egunaren inruan egitarua osatzen da Euskararen Aholku batzordearekin batera.

16. Kanpoko proiektzioa

Geoparkeen nazioarteko jardunaldia egin zenean aldibereko itzulpena jarri zen azalpen batzuk euskaraz eman ahal izateko. *Game of Thrones* telesailaren filmatze garaian ere Udalak zaindu zuen errotulu eta kartelak euskaraz ere egotea eta lehenestea. Jai edo ekitaldi bereziak: sailen arteko lankidetzaren egoten da puntu batzuk ziurtatzeko, esaterako, kartelak, esatariak... Adibideak: Olarro eguna, Flyschtrail lasterketa...

17. BESTELAKOAK

NEURKETAK ETA IKERKETAK: 5 urtean behin egiten da neurketa berezia.

Aurrera begira:

ZUMAIAKO EUSKARAREN HISTORIA SOZIALA: beka deialdia egin zuen Udalak 2018an eta Imanol Azkue ari da lanean, 2019ko abendua baino lehen amaitzeko asmoz.

EUSKARALDIA: bereziki aztertuko da Zumaian nolako eragina izan duen (emaitzak 2019an).

GAZTEEN ERABILERA: Soziolinguistika Klusterrarekin elkarlanean gazteen erabileran eragiten duten faktoreak ikertzeko asmoa du Udalak.

II

2018-2022 ALDIRAKO PLAN ESTRATEGIKOA

Aurreko aldiaren jarraipen modura planteatzen da hurrengo 5 urtekoa, behar diren egokitzapenak eginda:

- UEMArekin elkarlanean
- Euskaraldiak dakarrena aintzat hartuta

17 esparrutan **MARKO moduko bat** proposatzen da, era guztietako ekimenei bidea eman diezaiekeena. ESEP proiektu orokorrak badu udalek antolatutako ekintzen bilduma bat ere, lagungarri. Era berean, UEMAk ere katalogo moduko batean bilduak ditu esparru bakoitzean landu daitezken hainbat jarduera, “Hamaika egun baino hamaika aldiz gehiago” txostenean.

Bitartekoak eta azpiegitura:

- Euskara Zerbitzua eta Euskara batzordea
- Euskaraldiko batzordea
- Euskararen Aholku Batzordea eta beste elkarte/laguntzaile batzuk
- Urola Kosta Udal Elkarte eta UEMA

PLANAREN HELBURUAK

ESEParen helburu nagusia honakoa da: **ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen alde nabaria murrizteko bidean, euskararen erabilera indartzea**. Hots, euskaraz bizi nahi duen herritarrari, horretarako aukerak bermatzen dizkion neurri eta tresnak erabaki eta bultzatzea. Hizkuntza normalizazioaren plan estrategikoa da; hizkuntza politika egiten diharduten herri aginteei euren jardunean lagunduko dien oinarrizko tresna.

Plana, hiru helburu estrategikoren inguruan antolatuta dago. Bat, ezinbestez, helburu nagusia baita, euskararen erabilera izango da. Erabilerarekin batera, jabekuntzak eta elikadurakosatzen dute helburuen atala. Aipatutako helburu estrategiko bakoitzak eragin esparruak ere zehaztuta dauzka honako taulan ikus daitekeenez:

HELBURU ESTRATEGIKOAK	ESPARRUAK
EUSKARAREN JABEKUNTZA	1. Familia bidezko transmisioa 2. Irakaskuntza 3. Euskalduntze-alfabetatzea
EUSKARAREN ERABILERA	4. Administrazioa 5. Gune geografiko euskaldunenak 6. Arlo sozio-ekonomikoa 7. Aisia eta kirola
EUSKARAREN ELIKADURA	8. Liburugintza 9. Kulturgintza 10. Publizitatea 11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea 12. Hedabideak 13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia

1. Familia bidezko transmisioa

1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

2. Irakaskuntza

2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.3. Finantzazio sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea

3.4. Elebitasun pasiboa helduen munduan eta gutxieneko helburutzat areagotzea eta prestigiatzea

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

3.9. Etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

4. Administrazioa

- 4.1. Administrazioan euskararen erabilera sustatu eta bermatzea
- 4.2. Euskara ere lan hizkuntza izateko neurriak hartzea
- 4.3. Langileen euskara gaitasuna etengabe hobetzeko neurriak hartzea
- 4.4. Hizkuntzak erabiltzeko irizpideak finkatzea
- 4.5. Administrazioen arteko elkarlana areagotzea
- 4.6. Kanpoko komunikazioan euskararen erabilera gehitzea

5. Gune geografiko euskaldunenak

- 5.1. Herritarren gehiengo nabarmena elebidun izanik euskaldunenak diren gune geografikoetan euskara lehen hizkuntza funtzionala izan dadin neurriak hartzea
- 5.2. Euskara herritarren lehen hizkuntza gisa eta hizkuntza natural gisa sendotzeko lagungarri izango diren ekimenak garatzea

6. Arlo sozio-ekonomikoa

- 6.1. Euskara planak zabaltzeko babesa eta laguntza ematen jarraitzea eta diru-laguntzen sistema etengabe hobetzea
- 6.4. Enpresen jardunean hizkuntza irizpideak ezartzeko pausoak ematea

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea

7.2. Begiraleen prestakuntza sendotzea

7.3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea

7.5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak baliatzea, euskarak aisialdian izan dezakeen garapenari bultzada emateko

7.7. Etorkinen integrazio zabala eta aberasgarria ahalbidetzeko euskarazko aisialdi programa egokiak antolatzea

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea

8. Liburugintza

8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea

9. Kulturgintza

9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea

9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea

9.3. Euskarazko ekoizpenen zirkuituak antolatzea

9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea

10. Publizitatea

10.2. Herri administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea

11. Corpus plangintza eta euskararen kalitatea

11.1. Euskara estandarra elikatu, aberastu eta sendotzea hizkuntzaren kalitatea bermatuz: komunikagarritasuna, adierazkortasuna, zuzentasuna eta egokitasuna lantzea

11.3. EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea

11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea

11.6. Euskararen kalitatea zaintzea

12. Hedabideak

12.2. Euskarazko hedabideen garapen iraunkorra ahalbidetzeko neurriak hartzea

12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

13.1. Euskarazko baliabide teknologikoen gaineko informazioa bateratu eta zabaltzea

13.2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea

14.2. Familia transmisioa

14.3. Irakaskuntza

14.4. Euskalduntze-alfabetatzea

14.5. Administrazioa

14.6. Arlo sozioekonomikoa

14.7. Aisia eta kirola

14.8. Liburugintza

14.9. Kulturgintza

14.10. Hedabideak eta publizitatea

14.11. Teknologia berriak

15. Barruko proiektzioa

15.1. Euskararen irudi positiboa indartzea

15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gun euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gun eendetsuetan ere

15.3. Erakundeen arteko elkarlanean aritzea euskararen barruko proiektzioa bultzatzeko

15.4. Hizkuntzarekin zein kulturarekin zerikusia duten foroetan parte-hartzea

15.5. Euskara eta euskarazko kultura ezagutaraztera bideratutako ekitaldi eta ikuskizunak diseinatzea

15.6. Elebitasun pasiboa areagotzea eta prestigiatzea

16. Kanpoko proiektzioa

16.7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea

17. BESTELAKOAK

17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak